EUSKADIKO HAUTESKUNDE ADMINISTRAZIOA AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

ADMINISTRACIÓN ELECTORAL DE EUSKADI JUNTA ELECTORAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA

**Eusko Jaurlaritza**

EAEKO HAUTESKUNDE BATZORDEAK 2020(E)KO UZTAILAREN 12(E)AN EGINDAKO BILERAN, ERABAKI HAUEK HARTU DITU, BESTEAK BESTE:

**Idazkia**
**Osasuneko sailburuak adierazpenei buruz, esanez PCR positiboa duten pertsonek ezingo dutela boto-eskubidea erabili.** (2020/374)

• **Egilea**: EH Bildu Federazioa

*Batzordeak berretsi egin du Lehendakaritzak hartutako erabakia: Hauteskunde Batzorde honen uztailaren 10eko 2020/360 erabakia errepikatzea. Bertan adierazten da Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordeak berretsi egiten duela uztailaren 9an hartutako erabakia (2020/357) eta adierazi du Hauteskunde Batzorde Zentralak berak, 2020ko uztailaren 9an hartutako erabakian, adierazi zuela une zehatz hauetan Administrazioak hartutako neurriek zirkulatzeko baldintza egokiak bermatzen dituztela botoa ematera joan ahal izateko, behar bezala justifikatutako osasun-arrazoiengatik populazio-segmentu murriztuak izan ezik. Era berean, osasun-agintaritzak boto-emaileen osasun-eskubidea bermatzeko baldintza egokiak ezarri dituela ulertu behar da. Horregatik, Batzorde honek uste du Osasun Sailak ezarritako osasun-jarraibideak bete behar direla.*
*Akordio hori interesdunari, ordezkari orokorrei eta Eusko Jaurlaritzari bidali zitzaien.*

Vitoria-Gasteiz, 2020(e)ko uztailaren 12(e)an

**Gobierno Vasco**

LA JUNTA ELECTORAL DE LA CAPV, EN SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 12 DE JULIO DE 2020, HA ADOPTADO, ENTRE OTROS, LOS SIGUIENTES ACUERDOS:

**Escrito**
**En relación con las declaraciones de la consejera de Salud en torno a que las personas con PCR positivas no podrán ejercer el derecho al voto** (2020/374)

• **Autor**: Federación EH Bildu

*La Junta ratifica el acuerdo de la Presidencia de reiterar el acuerdo 2020/360 de 10 de julio de esta Junta Electoral en el que se indica que la Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País vasco reafirma el acuerdo adoptado el día 9 de julio (2020/357) y señala que la propia Junta Electoral Central, en acuerdo adoptado el día 9 de julio de 2020, señaló que en estos precisos momentos las medidas adoptadas por la Administración garantizan unas condiciones adecuadas de circulación para poder acudir a votar, con la salvedad de segmentos reducidos de población por motivos sanitarios suficientemente justificados. Asimismo, debe entenderse que la autoridad sanitaria ha establecido unas condiciones adecuadas para garantizar el derecho a la salud de los votantes. Por ello, esta Junta considera que debe atenderse a las directrices sanitarias establecidas por el Departamento de Salud. Este acuerdo fue remitido al interesado, a los representantes generales y al Gobierno Vasco.*

Vitoria-Gasteiz, 12 de julio de 2020

**IDAZKARIA / EL SECRETARIO**

Andoni Iturbe Mach